


# ZELAIETAKOAK



## LURRALDETA KO TXORI-MOTAK (II)

La Fontaine'k "Belea eta azaria" ipuiña idatzi euskun, belea iñozkoa eta azaria zurra zirala esan-nairik. Baiña belea aundikia da: Apolo'ren lagun izan zan geroa igarten ekialako. Europa'ko Iparraldean gurtu egiten dabe, Odin jainkoaren txori lez.

Mikak ugaritzen dira udan, gari-ale billa eta kaltegarriak dira, baiña zomorro asko be jaten dabez. Euren taldeak ondo eratuta dagoz eta euren logelak aurrean zaintzailleak eukiten dabez. Arerioa datorrenean oiu bat botaten dau batek eta besteak iges egiten dabe.

Pika deritxo euren lagun bateri, au zuri-baltza da eta isats edo buztan luzea dauka.

Eperrak ibiltzen dira igitariak itzitako garauak jaten. Antxe egiten dabez abiak, iñoz ogei aurrautzagaz.

Faisana arrotza dogu, baiña gaur emen daukaguz bertokotuta. Grezia ta Erroma'tik ekarri eben Europa'ra.

## ITXASOKOAK

Itxasoa munduaren lautatik iru da eta bizidunez beterik dago, eta onein artean egazti asko.

Albatros: Au da aundiena, iru metro luze.

Pagalo: Baltza, itxas-txoriai arraiña kentzen dautse eta abiak oztu.

Kulixka: Artikotik etorten da neguan.

Frantze'ko Rodano-ondoan dago "klamarga" txiori-erria, toki ostetsua. Flamenkoa dabe buru.

España'ko egoaldean dago "Coto de Doña". Or egoan antxiña Tartesos kobre-leku ospetsua eta Argantonio erregea, orain 3000 urte dirala. XVII gizaldia ezkerro izena aldatu eban Medina Sidonia'ko Dukearen alabearena artzeko. Or dagoz gartzak, arrapariak, ankaluzeak, antzarrak et arranoak.

Ameriketako Florida'n dago onen antzeko leku bat.

## AFRIKA'KOAK

Greziarrak eta erromatarrak uste eben Afrika'n egodun gizakiak bizi zirala.

Egazti asko dagoz Afrika'n: Kurrilloak, pelikanoak, palmipedak, "jiburu" koloretsua, maillu-txoria, gartzak milloika...

### Basamortukoak

Basamortuan, oasi edo on-uneetan txoriak dagoz, ez asko. Jatekorik ez dauke eta arrapariak ugari.

### Artikokoak

Gau-erdiko eguzkia dagon leku aretan, neguan dana izotza dan tokian, ba-dagoz egaztiak.

### Egoameriketakoak

Españatarrak ara, urre-gosez joan ziran, baiña izadi ederra aurkitu eben.

Amazonas-aldeak txoririk ondoen apainduak daukaz.

Kondorra, esaterako, Andes mendietako erregea da, iru metro luze Inditarrak jainkotzat eukin. Bere eizarako tranpak egiten dira.

## AUSTRALIAKOAK

Kanguruaren lurraldea da au eta egaztiak be ugari daukaz.

Lira egaztia da bereiziena: Isatsa dauka lira-antzekoa eta beste amabiren beste abesten dau berak.

Martin-eiztaria be ugari dago an.

Ezaguna da txori barritsua, muzker kolorekoa.

## OLAZAR' tar Martin'ek

ZUGATZ BAT SARTU DAUANARENA EZ DA  
ALPERREKO BIZITZEA

DANTE